




0


IKASLEENTZAKO JARDUEREN LABURPEN-TAULA

BLOKE TEMATICOA	1. JARDUERA PROPOSAMENA.	2. GEURE BURUA AKTIBATZEN DUGU.	3. IKASITAKO APLIKATZEN DUGU.
BALIABIDEA/ JARDUERA	BANAKAKO FITXAK	FLIPPED IKASGELARAKO DINAMIKA	LANKIDETZAKO IKASKUNTZA-JARDUERAK
1. NUTRIZIOAREN ETA ELIKADURAREN ARTEAN DESBERDINTZEN DUGU	GAMIFIKATUTAKO TOKEN BANAKAKO ZERRENDA (WEB)	ELIKAGAI-TALDEEN INBENTARIOA	IKASGELAKO JARDUERAK. ARCIMBOLDO.
		FRUTA ETA BARAZKIEN INBENTARIOA	IKASGELAKO JARDUERAK. ZIRKULU KROMATIKOA.
2. ELIKADURA OREKATUA	GAMIFIKATUTAKO TOKEN BANAKAKO ZERRENDA (WEB)	ASTEKO MENUA/ ORDEZKO MENUA	IKASGELAKO JARDUERAK ETIKETA NUTRIZIONALA
		MENU OREKATUA	
3. SUKALDE ARDURATSU ETA JASANGARRIA	GAMIFIKATUTAKO TOKEN BANAKAKO ZERRENDA (WEB)	SORMENEZ BETERIKO ETA KULTURA ANITZEKO MENUA	IKASGELAKO JARDUERAK. LORATEGI USAINTSUA.
		HONDAKINIK GABEKO MENUA. PLATER JASANGARRI BERRIEN SORRERA	IKASGELAKO JARDUERA. GASTRONOMIA MAPA.
GAMIFIKATUTAKO BALIABIDE INTERAKTIBOAK	GENIAL.LY 1 (ELIKADURA, KONTSUMO ARDURADUNA ETA SASOKOA, TOKIKO GASTRONOMIA)		
	"THE PERFECT MENU"		
	GENIALLY 2 (IRAUNKORTASUN BALIABIDEAK, HONDAKINAK O, ERABILI SUKALDEA)		
			"DRAGOIAREN LIZEA"






GAMIFIKATUTAKO BALIABIDE INTERAKTIBOAK



Genial.ly online plataforma da, zeina dinamika gamifikatuen bitartez, baliabide digital interaktiboak proiektatzeko aukera ematen duen. Tresna moldakorra da eta hau guztia egiteko aukera emango dizu:

- 1 Ikasleek edozein gailutatik bakarka jolasteko (ordenagailua, Chromebookak, tableta, etab.)
- 2 Bertan sartzeko eta gela osoari proiektatzeko. Zuk maneiaturiko dituzu erantzunak, aldez aurretik taldearekin ados jarrita.
- 3 Informatika gelan taldeka jokatzeko, ordenagailua edo gailua partekatuz.



“THE PERFECT MENU”

Genial.ly honen jolasteko dinamika:

Sukalde batean gertatzen da istorioa, eta ikasleak hainbat erronka gainditu beharko ditu menu osasungarria lortu arte.

Egin klik botoi interaktiboetan beste material osagarri batzuetara sartzeko (ingelesez).

Jokoak escape-room bat bezala funtzionatzen du; egiten diren galderen bitartez, zenbait “misio” desblokeatu egingo dira.

5 quiz galdera (Elikadura osasungarria)

Sekuentzia ordenatzeko 4 erronka (Kontsumo arduratsua)

Irudi zuzena aukeratzeko 3 erronka (Sasoiko produktuak)

Irudia esaldi zuzenarekin lotzeko 3 erronka (Tokiko gastronomia)

Sartu esteka honetan:

[JOKORAKO ESTEKA](https://view.genial.ly/643e8cb042d43d0011d3ad87) - <https://view.genial.ly/643e8cb042d43d0011d3ad87>



“DRAGOIAREN LIZEA”

Genial.ly honen jolasteko dinamika:

Istoria, Arcade estetikakoa, lizea batean gertatzen da. Ikasleak bertatik ihes egin beharko du, dragoiak harrapatu eta irentsi gabe.

3 quiz galdera (Baliabideak aurrezte eta jasagarritasuna)


Irudi zuzena aukeratzeko 2 erronka (aprobetxatzeko sukaldaritzako errezetak)

Hitz ezkutua aurkitzeko 2 erronka (0 hondakinak)

2 quiz galdera (0 hondakinak)

Sartu esteka honetan:


[JOKORAKO ESTEKA](https://view.genial.ly/643e8da8e0f18a001215a39c) - <https://view.genial.ly/643e8da8e0f18a001215a39c>



BLOKEA 1



NUTRIZIOAREN ETA ELIKADURAREN ARTEAN DESBERDINTZEN DUGU -Ikasleentzako jarduerak-



LOTURA KURRIKULARRA ETA FUNTSEZKO GAITASUNAK

APLIKATUTAKO METODOLOGIA	FUNTSEZKO GAITASUNAK
Gamifikazioa	✦ Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko ✦ Ekintzailtzarako gaitasuna
Elkarlaneko ikaskuntza	✦ Hizkuntza gaitasuna ✦ Kultur kontzientzia eta adierazpenerako gaitasuna
Flipped Classroom	✦ Gaitasun digitala
LOTURA KURRIKULARRA	
✦ Natura, gizarte eta kultur ingurunearen ezagutza	
✦ Arte Hezkuntza	

NUTRIZIOAREN ETA ELIKADURAREN ARTEAN DESBERDINTZEN DUGU

1. JARDUERA PROPOSAMENA.

Banakako fitxa dibertigarri batzuk proposatzen dizkizugu, ikasgelan ikusitako ikaskuntzak **gamifikazioari** esker finkatzeko.

Gainera, gogoratu "The Perfect Menu" joko interaktibo digitala duzula.

JARDUERA PROPOSAMENA 1. GAMIFIKATUTAKO PERTSONA TXIKIAK

Webgunean dagozkion fitxa guztiak aurkituko dituzu.



KOADRO SINOPTIKOA JOLASERAKO FITXAK		
GAI ARDAZLEA	EDUKIA	FITXA ZBK.
MAKROELIKAGAIAK	ELIKAGAI TALDEAK	4
	KARBOHIDRATOAK	6
MIKRONUTRIENTEAK	FRUTAK ETA BARAZKIAK	3, 5

2. GEURE BURUA AKTIBATZEN DUGU.

Ikerketa-dinamika dibertigarri batzuk proposatzen dizkizugu, **Flipped Classroom**aren metodologiari jarraituz, ikaskuntzak eta ondorioak ikasgelan eztabaidatzeko.

JARDUERA PROPOSAMENA FLIPPED CLASSROOM

1.1. fitxa. ELIKAGAIEN INBENTARIOA.

- ▶ Ez galdu begi bistatik erosketak egitera joaten den familiako kide hori eta gorde itzazu supermerkatuko produktuen liburuxka ezberdinak.
- ▶ Moztu itzazu bertan aurkitzen dituzun jakiak: haragia, arraina, zerealak, esnekiak... lan ona egin, polita geratu dadila!
- ▶ Janaria moztu eta gero antola ezazu elikagai-taldeetan haien mantenugaien arabera: proteinak, karbohidratoak eta lipidoak.

1.2. fitxa. FRUTA ETA BARAZKIEN INBENTARIOA.

- ▶ Lor itzazu supermerkatuetako liburuxka ezberdinak.
- ▶ Moztu barazki eta fruta freskoak, zenbat eta gehiago, are eta hobeto!
- ▶ Taldeka itzazu kolorearen arabera bakoitzaren bitaminak eta gatz mineralak adieraziz, inork aurkitu al du moreren bat? Arrosa kolorekorik?



NUTRIZIOAREN ETA ELIKADURAREN ARTEAN DESBERDINTZEN DUGU

3. IKASITAKOA APLIKATZEN DUGU.

Elkarlaneko ikaskuntzaren metodologiari jarraituz, **taldean eta ikasgelan egiteko zenbait jarduera** dibertigarri proposatzen dizkizugu. Jarduera horiek baliagarriak izango zaizkizu elikadura-baliabideei eta elikagaiak alferrik galtzeari buruz gogoeta egiteko. Baita ere, **parte-hartze** lana aurkezteko, "Salvacomidas News" egunkariaren azala, alegia.

JARDUERA PROPOSAMENA

Guiseppe Arcimboldo (Milán, 1527- 1593) Errenazimenduko artista bat izan zen. Bere artelanak bakarrak eta bereziak dira, bere margolan gehienak antropomorfoak baitira, giza siluetak frutak, barazkiak, haragia eta arraina bezalako objektu ugari erabiliz marrastuz. Hura ikertuz, ikasleek elikagai talde bakoitza eta haien balio nutrizionala desberdintzen eta baloratzen ikasiko dute, ikuspuntu original eta artistiko batetatik abiatuta.



- ▶ Eska iezaezu zure ikasleel taldeetan **Arcimboldo** artista italiarraren margolan bat aukeratzeko.
- ▶ Lan-talde bakoitzak margolan bana aukeratu behar du bertan ageri diren elikagai taldeak, hala nola haien nutrizio-propietateak deskribatzeko.
- ▶ Margolan batzuetan urtaroko produktuak agertzen direla aprobetxatu dezakezu **sasoiko produktuetaz** hitzegiteko.
- ▶ Amaitzeko, egindakoa amankomunean jartzeko saio bat egin dezakezu, talde bakoitzak amaierako lana gainerako ikaskideei aurkeztuko dielarik.

URRATSEZ URRATS

- ✦ Eska iezaiozu lan-talde bakoitzari margolan bat aukeratzeko. Elikagai -multzo bakoitzari eta haien nutrizio-taldeei buruzko informazioa batu beharko dute
- ✦ Talde bakoitzak azalpen panel txiki bat osatuko du, DIN A3 tamainako kartulina banatan, ahoz ikertutakoa azalduz.
- ✦ Zintzilika itzazue guztiak ikasgelan edo korridorean mural gisa.



NUTRIZIOAREN ETA ELIKADURAREN ARTEAN DESBERDINTZEN DUGU

JARDUERA PROPOSAMENA 2




Zirkulu kromatikoa funtsezko elementua da kolorearen azterketan.

Barazki eta fruten koloreek haien mantenua eta harreman zuzena dutela eta organismoan eragin nabarmena dutela ikusi berri dugu...

Zergatik ez dugu zirkulu kromatiko bat egiten fruta eta barazkiekin? Zure ikasleei benetan gustatuko zaie!

URRATSEZ URRATS

- * Talde bakoitzak zirkulu kromatikoaren atal bat egingo du kolore bat aukeratuz. Kartulinak triangelu formakoa izan behar du, alde borobildu batekin "gaztatxo" baten antzera.
- * Eska iezaiezu ikasleei kartulinan aukeratutako kolorea duten fruta eta barazkien irudiak itsasteko.
- * Elikagaien onura nutrizionalak ere gehi ditzakete.
- * Emaizta azaltzeko triangelu formako azalpenpanel bat egin dezakete DIN A3 tamainako kartulina bat erabiliz eta ikasitakoa ahoz azalduz.
- * Jarduera borobil-borobila gera dadin, proposa iezaiozu talde bakoitzari aurkezpenaren egunean aukeratutako kolore bereko arropa janzte.
- * Talde guztiek aurkezpena amaitu eta gero triangeluak elkarrekin lotu, zirkulu kromatiko haundi bat osatuko duzue!.






BLOKEA 2

ELIKADURA OREKATUA.

- Ikasleentzako jarduerak -



LOTURA KURRIKULARRA ETA FUNTSEZKO GAITASUNAK

APLIKATUTAKO METODOLOGIA	FUNTSEZKO GAITASUNAK
Gamifikazioa	✦ Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko
Elkarlaneko ikaskuntza	✦ Ekintzailtzarako gaitasuna ✦ Hizkuntza gaitasuna.
Flipped Classroom	✦ Gaitasun digitala ✦ STEM gaitasuna
LOTURA KURRIKULARRA	
✦ Natura, gizarte eta kultur ingurunearen ezagutza	
✦ Matematika	

ELIKADURA OREKATUA

1. IKASITAKOA SENDOTZEN DUGU.

Banakako fitxa dibertigarri batzuk proposatzen dizkizugu, ikasgelan ikusitako ikaskuntzak **gamifikazioari** esker finkatzeko.”

Gainera, gogoratu “The Perfect Menu” joko interaktibo digitala duzula.

JARDUERA PROPOSAMENA 1. GAMIFIKATUTAKO PERTSONA TXIKIAK

Webgunean dagozkion fitxa guztiak aurkituko dituzu.



KOADRO SINOPTIKOA JOLASERAKO FITXAK		
GAI ARDATZA	EDUKIA	FITXA ZBK
ELIKADURA OREKATUA	ESNEKIAK	3
	FRUTAK ETA BARAZKIAK	5
	PLATER OSASUNTSUA	9
	JATORDUAK: GOSARIA, BAZKARIA ETA AFARIA	8
	ASTEKO MENUA	10

2. GEURE BURUA AKTIBATZEN DUGU.

Ikerketa-dinamika dibertigarri batzuk proposatzen dizkizugu, **Flipped Classroom**aren metodologiari jarraituz, ikaskuntzak eta ondorioak ikasgelan eztabaidatzeko.

JARDUERA PROPOSAMENA FLIPPED CLASSROOM

2.1 fitxa. ASTEKO MENUA ETA ORDEZKO MENUAREN PROPOSAMENA

- ▶ Idaz ezazu fitxa batean aste osoko menua (5 plater/eguneko). Ikastetxeko jantokikoa izan daiteke, etxekoa edo bien arteko nahasketa bat, zuk aukeratu!
- ▶ Bigarren orrian idaz ezazu zalantzarik gabe jango zenukeen ordezeko menu bat.
- ▶ Kalkula ezazu plater edo menu bakoitzaren balio nutrizionala eta aurki ezazu proposatu duzun menua zein neurritan den osasuntsua.

2.2 fitxa. MENU OREKATUA

- ▶ Pentsa ezazu nahiago duzun jatorduak (gosaria, bazkaria ala afaria) zein balio nutrizional izan behar duen: proteinak, karbohidratoak eta lipidoak, eta idatzi horietatik izan behar dituen portzentaiak. Esate baterako gosariak gutxienez %25 proteina izan beharko luke. Indartsu egon beharra dago!
- ▶ Ondoren gustatzen zaizunaren arabera portzentai horiekin bat datozen elikagaiak aukera itzazu, baina ez ahaztu denetarik gehitzea, ez egin tranparik!
- ▶ Konpara itzazu aurreko fitxako menuko plater batzuk hemen proposatutakoarekin eta komenta itzazu ezberdintasunak.

ELIKADURA OREKATUA

3. IKASITAKOA APLIKATZEN DUGU.

Elkarlaneko ikaskuntzaren metodologiari jarraituz, **taldean eta ikasgelan egiteko zenbait jarduera** dibertigarri proposatzen dizkizugu. Jarduera horiek baliagarriak izango zaizkizu elikadura-baliabideei eta elikagaiak alferrik galtzeari buruz gogoeta egiteko. Baita ere, **parte-hartze lana** aurkezteko, "Salvacomidas News" egunkariaren azala, alegia.

JARDUERA PROPOSAMENA 1

Kontsumitutako elikagai eta platerrek, organismoan eragiten dituzten onuren ikuspuntutik egindako [Konparaketa analisi](#) baten bidez, ikasleek elikagai talde bakoitza desberdintzen eta [etiketa nutrizionalaren irakurketa eta interpretazioaren bidez](#) berberak baloratzen ikasiko dute.

Eska iezaiezu ikasleei taldeka produktu eta elikagaien [etiketa nutrizionalak](#) biltzeko.

- ▶ Talde berdinetan lan eginez, mantengai ezberdinek organismoaren gain dituzten efektuak zeintzuk diren [aztertu](#) eta aurkitu beharko dituzte.
- ▶ Bisualago egiteko, eska iezaiezu giza gorputzaren silueta batean elikagai bakoitzarekin onurak jasotzen dituzten gorputzatalak eta organoak seinaltatzeko. Emaiezu sormenez jokatzeko aukera.
- ▶ Saioa ikasitakoa amankomunean jarriz amai dezakezu, talde bakoitzak lortutako emaitzak gainerakoei azalduko dizkielarik.

Información nutricional	
tamaño de la porción 1/4 de taza (113 g)	
Porciones por envase 8	
Cantidad por porción	
Calorías 100	Calorías de las grasas 20
% de valor diario*	
Grasa total 2g	3%
Grasas saturadas 1.5g	7%
Grasas <i>trans</i> 0g	
Colesterol 10mg	3%
Sodio 460mg	19%
Total de carbohidratos 4g	1%
Fibra 0g	0%
Azúcares 4g	
Proteína 16g	
Vitamina A 0%	Vitamina C 0%
Calcio 8%	Hierro 0%

Los porcentajes de valores diarios se basan en una dieta de 2.000 calorías

- 1. Informazio nutrizionala:** produktuaren 100 gr. edo 100 ml. bakoitzeko, berberak duen balio energetikoa eta makroelikagai kantitatea eta mikroelikagai batzuen (gatza, kolesterola, kaltzioa...) kantitatea da, gramotan adierazita.
- 2. Kaloriak:** Elikagaiak egiten duen energia ekarpen kantitatea da, kilokalorietan edo kilojul baloreetan adierazita.
- 3. Mantengaiaren xehakapena:** Portzio batean (gr) eta eguneko dietaren balore osoarekiko (%) zein kantitatetan dagoen azaltzen du.
- 4.** Egunean zehar gehienez ere 20 gramo gantz ase har daitezke (haragia, gazta, arraultzak). Gantz asegabeak (monoinsaturatuak eta poliinsaturatuak) oso osasuntsuak dira eta organismoaren funtzionamendu eta oreka egokiarentzako onuragarriak dira (oliba olioia bezalako landare jatorriko olioak, intxaurrak, urrak eta almendrak bezalako fruitu lehorrak, eta sesamoa, lihoa, chia edo kalabaza haziak)..

5. Karbohidratoak eta azukreak: produktuaren 100 gramoko 10 gr. azukre badago, azukrean aberatsa den elikagaiaz ari gara, 2 eta 10 gramo artean badago neurritsuaz eta 2 gramotik behera azukre gutxikoaz.

6. Proteinak: Proteinetan aberatsa den produktu batek 20 gr proteina eskeiniko ditu 100 gramoko, neurritsuak 10 eta 20 gramo artean eta 10 gramotik behera, proteina gutxikoa dela esango dugu

7. Beste batzuk: Fibra etiketako oso balio garrantzitsua da, zenbat eta fibra gehiago egon, orduan eta luzaroago digeritu beharko baita eta asetasuna areagotuko du. Fibran aberatsa den produktu batek 10 gramo fibra baino gehiago izango ditu, neurritsuak berriz 6 eta 10 gramo tartean eta 5 gramotik behera produktuak fibra gutxi duela esango dugu.

URRATSEZ URRATS


- * Lantalde bakoitzak etiketa nutrizional ugari batu behar ditu, gehien/gutxien gustaten zaizkien plateretan edo jakietan taldekatuz.
- * Azter ezazue taldean jaki multzo bakoitzaren informazio nutrizionala eta eragin positiboak/negatiboak.



BLOKEA 3



SUKALDE ARDURATSU ETA JASANGARRIA - Ikasleentzako jarduerak -



LOTURA KURRIKULARRA ETA GAITASUNAK

APLIKATUTAKO METODOLOGIA	FUNTSEZKO GAITASUNAK
Gamifikazioa	✦ Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko
Elkarlaneko ikaskuntza	✦ Ekintzailtzarako gaitasuna
Flipped Classroom	✦ Kultur kontzientzia eta adierazpenerako gaitasuna
	✦ Gaitasun digitala
LOTURA KURRIKULARRA	
	✦ Natura, gizarte eta kultur ingurunearen ezagutza
	✦ Matematika
	✦ Arte Hezkuntza

SUKALDE ARDURATSU ETA JASANGARRIA

1. IKASITAKOA SENDOTZEN DUGU.

Banakako fitxa dibertigarri batzuk proposatzen dizkizugu, ikasgelan ikusitako ikaskuntzak **gamifikazioari** esker finkatzeko.”

“Gainera, gogoratu “Dragoiaren Lizea” joko interaktibo digitala duzula.

JARDUERA PROPOSAMENA 1. GAMIFIKATUTAKO PERTSONA TXIKIAK

Webgunean dagozkion fitxa guztiak aurkituko dituzu.



KOADRO SINOPTIKOA JOLASERAKO FITXAK		
GAI ARDAZLEA	EDUKIA	FITXA ZBK.
SUKALDE ARDURATSU ETA JASANGARRIA	TRESNAK	6
	EDUKIONTZIEN BIRZIKLAPENA	2, 7
APROBETXAMENDUZKO JANARIA	FRUTEN APROBETXAMENDUA	1
	OGI XEHETUA	3
	KROKETAK	4
	URDAIZTUTAKO HARAGIA ETA BESTE PLATER BATZUK	6

2. GEURE BURUA AKTIBATZEN DUGU.

Ikerketa-dinamika dibertigarri batzuk proposatzen dizkizugu, **Flipped Classroom**aren metodologiari jarraituz, ikaskuntzak eta ondorioak ikasgelan eztabaidatzeko.

JARDUERA PROPOSAMENA FLIPPED CLASSROOM

3.1 fitxa. SORMENEZ BETERIKO MENUAREN PROPOSAMENA.

- ▶ Idaz itzazu fitxa batean ikusitako gastronomia mapa sortzerakoan edo meidterranean dietako errezeta sortan ikusitako beste herrialde edo lurraldeetako ohiko plater batzuk, edo zuk zeuk beste lekuren batetako plater bereziren bat ezagutzen baduzu konpartitu!
- ▶ Bigarren orri batean, egin menu original bat, jatorria adieraziz.
- ▶ Etzaitetz gatzila izan, sor ezazu menu internazional eta desberdina, leku hartako kultura gastronomikoaren balioa erakusten duena.

3. IKASITAKOA APLIKATZEN DUGU.

Elkarlaneko ikaskuntzaren metodologiari jarraituz, **taldean eta ikasgelan egiteko zenbait jarduera** dibertigarri proposatzen dizkizugu. Jarduera horiek baliagarriak izango zaizkizu elikadura-baliabideei eta elikagaiak alferrik galtzeari buruz gogoeta egiteko. Baita ere, **parte-hartze** lana aurkezteko, “Salvacomidas News” egunkariaren azala, alegia.



SUKALDE ARDURATSU ETA JASANGARRIA

IKASKUNTZA LANKIDETZAKO JARDUERA 1. PROPOSAMENA


Gastronomia oro identitate kultural eta lurralde-identitateari loturik dago eta biak ezagutu daitezke plater tradizionalen historia eta jatorriaren bitartez.

Jakien zaporea areagotu egiten da munduko toki ezberdinetan nola prestatzen diren ezagutzen denean, haien zaporearen osagarri erabilitako ongailuak nola aprobetxatzen diren, eta nola, sukalde bakoitzean ahalik eta aprobetxamendu handiena ematen zaien.

Lorategi usaintsua. Landare usaintsuekin eta espezieekin lorategi bat sortzea eta haien propietateen inguruan ikertzea, erabilera bakarreko edukiontziak lorontzi moduan erabiliz.

URRATSEZ URRATS

- ✦ Eska iezaezu ikasleei, lantaldeka, haien inguruari aberastasun kulturala emateko gastronomia mapa, bat sortzeko, edozein autonomi erkidego, zein Europako edota munduko lurralde aukeratu dezakete horretarako.
- ✦ Landu ezazu mapa zeharka Gizarte Zientzien alorrean.
- ✦ Jarduera garatzeko aukera ugari dituzu:
 - Talde bakoitzak haien familiei prestatzen dituzten plater tradizionalen inguruan galdetu behar die.
 - Talde bakoitzak zonalde batetako ohiko platerak ikertzen ditu.
- ✦ Eska iezaiozu talde bakoitzari aukeratutako zonaldean ohikoak edo bereziak diren platerak biltzeko eta mapa gainean plater bakoitzaren irudia itsasteko, collage moduan.
- ✦ Helburu nagusia gastronomia-kultura aberasteko plater berriak, janaria prestatzeko beste modu batzuk, zapore konbinazioak, haien jatorria, etab. ezagutzea da



SUKALDE ARDURATSU ETA JASANGARRIA

IKASKUNTZA LANKIDETZAKO JARDUERA 2. PROPOSAMENA

Gastronomia mapa. Beste lurralde eta herrialdeetako gastronomia ezagutu, plater ezagunen irudiekin mapa ugari sortuz.

URRATSEZ URRATS


- ✦ Eska iezaeizu ikasleei, lantaldeka, haien inguruari aberastasun kulturala emateko gastronomia mapa, bat sortzeko, edozein autonomi erkidego, zein Europako edota munduko lurralde aukeratu dezakete horretarako.
- ✦ Eska iezaeizu talde bakoitzari aukeratutako zonaldean ohikoak edo bereziak diren platerak biltzeko eta mapa gainean plater bakoitzaren irudia itsasteko, collage moduan.
- ✦ Helburu nagusia gastronomia-kultura aberasteko plater berriak, janaria prestatzeko beste modu batzuk, zapore konbinazioak, haien jatorria, etab. ezagutzea da.

IKASKUNTZA LANKIDETZAKO JARDUERA 3. PROPOSAMENA

1, 2, 3. Erantzun berriro ere. Aprobetxamenduzko janaria. Ezagunak diren plater batzuk baloratu eta berriak sortu.

URRATSEZ URRATS

- ✦ Ikasgelan jolasteko joko bat sortuko duzue "1,2,3. Berriro erantzun" estiloan.
- ✦ Lantalde bat kartulinetan elikagai ugari idazteaz arduratuko da, batez ere ohiko menu batean soberakinak izan daitezkeenak: arroz pixka bat, pasta pixka bat, oilasko bular zati bat, etab.
- ✦ Beste talde batek kartulinetan plater baten prestakuntzan soberan gera litezkeen elikagaiak idazteaz ardura daiteke: Pipar erdi bat, ogi barra erdia, etab.
- ✦ Jolasa ondorengoan datza, kartulinak atera eta talde bakoitzak txandaka, tokatutako osagaiekin plater berri bat proposatu beharko du: Oilasko bular zatia + pipar erdia + tipula erdia = oilasko "fajitak" (mexikar estiloko platera).





LOS SALVA COMIDAS

¡¡¡¡¡ BIEN A COMER

YUM!

